


## Droga-mendetasunen ziozko tratamendu hastapenen kopuruak behera egin du gazteen artean

Gazteen artean tratamendu-hastapen gehien eragiten dituen substantzia kokaina da. Aldi berean, kannabisaren eta alkoholaren ziozko tratamenduek gorakada egonkorra izan dute.

2007an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean 699 tratamendu-hastapen erregistratu ziren. Tratamendu-hastapenek 1996tik izan duten bilakaera aztertuz gero, %41,4ko beherakada egon da tratamendu kopuruan. Kopuruak behera egin du egonkorki 2000raino, baina urte horretatik aurrera gora egin du, 2003an 820 kasutan kokatu arte. 2004tik 2007ra doan aldian kasu kopurua jaitsi egin da, 700 tratamendu baino gutxiago zenbatu arte.




Iturria: Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak emandako datuak.

2007ko egoerak, sexuen arabera, tratamendu gehienak gizonek hasi dituztela adierazten du (574 kasu, guztien %82,1). Emakumeek hasitako kasuak %17,8 dira (125 kasu).

Adin-taldeei erreparatuta, tratamendu gehienak gazte nagusienek hasi dituzte (%53,2); %34,3 20 eta 24 urte bitartekoei; eta %12,5 15 eta 19 urte bitarteko adina dutenek.

15 eta 29 urte bitartekoen tratamenduen %47,8 kokainak eragiten ditu; %20 kannabis kontsumoak; eta %10,6 alkohol kontsumoak.

1996tik 2007ra heroina kontsumoak eragindako tratamenduen kopuruak behera egin du nabarmen, tratamendu kopuru gutxien eragiten dituzten substantzien artean (anfetaminak, speed-a eta estasia) kokatu arte. Kokainaren, kannabisaren eta alkoholaren ziozko tratamendu-hastapenek, ordea, gorakada izan dute tarte horretan.



Iturria: Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak emandako datuak.

Bai emakumeen bai gizonen artean kokaina da tratamendu-hastapen gehien eragiten dituen droga (gizonen %49,1 eta emakumeen %41,6). Era berean, azpimarratzekoa da kannabisaren kontsumoak eragiten dituen kasuen kopurua (%21,7).

Droga moten azterketak eta tratamenduak hasten dituzten gazteen adinak aztertuz gero, agerikoa da 15 eta 19 urte bitartekoen artean tratamendu-hastapen gehien eragiten dituen droga kannabisa dela (%55,2). Nagusien artean, ordea, garrantzi gehien duena kokaina da (20 eta 24 urte bitartekoen %50,8 eta 25 eta 29 urte bitartekoen %51,8).

**Erlazionatutako datuak kontsultatzeko:**

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kolektiboaren tratamendu-hastapenei buruzko adierazle estatistikoak

**Erlazionaturiko estekak:**

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema